

---

# Sarrera

*Txepetx*

**B**este egunean ene alaba (zazpi urtekoa) hurbildu zitzaidan esanez: “aitta, nik nahiago nuke hil bizi baino, bitziza hau oso zaila baita”. Nere alaba pertsona guztiz normala da. Normalegia, esango nuke. Hiru urtez eskola arrunt normala gozatu zuen Londresen (laguntzari konpetentziari baino garrantzi haundiagoa ematen dion aparteko eskola horietako bat, hain zuzen ere). Bere inguru-familiarrean patologiarik egon badago, baina normaltasunaren barnean kokaturik daudela uste dut. Bestaldetik, gehienetan, nere alaba neska alai eta zorionsua da, sakonetik jaiotzen zaion egiazko alaitasun hori kutsatzen digularik. Agian horrexegatik, bera erne eta sendo dagoelako, bere ingurune sozialaren anormalitateak (telebistatik, eskolatik, kaletik eta abarretik ailegatzen zaizkionak) biziki somatu ditu. Eta zazpi urtez konturatu da besteok goiz ala beranduago konturatzen garen horretaz


ere: “kanpoko munduak ematen dizkigun baloreek ez dutela zer ikusirik gure barnetik bilatzen dugunarekin”.

Bitziza zail bihurtu zaigu edo bihurtu dugu, berez oso erraza izanik. Dirudienez, norbaitek nekea baliogarri dela esan digu; maitasuna, alferra; indartsuen bortxaketa eta inposaketa ezinbestekoa eta desiragarri (selekzio naturalaren fruitua eta ikurra omen) eta gure bihotzak gorde dituen nahi eta ametsik onenak espejismo hutsak, oro susmagarri.. Gainera bestelakorik esaten digutenean ere, horiexek dira, ordea, beren ekintzekin estatuek egunero hedatzen dituzten printzipio eta kontsignak.

Prozesu honen izena “inbertsioa” da. Eta inbertsioa da aurrean dugun munduaren hizkuntz unibertsal bakarra.

Inbertsiotik ateratzeko, errealitatean sartzeko gure hizkuntz propio eta pertsonala geureganatu behar dugu. Geure





J. M. Sánchez Carrión. "Txepetx"

hitzak bilatu, garbitu, erabili eta zabaldu. Gure soinu kantatu eta gure dantza dantzatu besteen dantza eta soinueta-ko onarpena eta erakarpena zabalduz batera, bakoitza melodia unibertsal baten nota parekide bezain ederra dela konturatuz.

Empedokles-ek zioenez, mundu honetan diharduten bi indarrak "filia" eta "neikos" dira, hots, laguntasuna eta etsaikeria. Eta euskaraz are hobekiago adierazteko, "aldetasuna" eta "kontrakeria"ren indarrak. Batak elkartu egiten gaitu; besteak banatu. Lehenak animatu egiten gaitu ("anima" edo arima ematen digu); bigarrenak, berriz, desanimatu (arima ebasten digu). Batak entusiasmoz berotzen gaitu (eta entusiasmo hitzak "Zeus-engan" edo "Jainkoarengan" egotea adierazten du); besteak hustu eta hoztu: eguneroko heriotza ematen digu.

Horregatik, dauden mintzabideak bi dira, eta besterik ez: biziarena eta herioarena.

Heriotzaren mintzabidea ongi dakigu, botere guztiek irakatsi bait digute. Jaio ginenetik ikusi eta ikasi dugu behin

eta berriz maitatzen genuena hiltzear zegoela: Euskara eta izadia, askatasuna eta justizia, elkarrenganako afektibitate sakona, lan sortzaile baten aukera... Boterearen errealitate bakarra eraso dela dirudi. Eta badirudi bere "tanatofilia" (Heriozaletasuna) elikatzeko gure "biofilia" (Bizizaletasuna)ren etengabeko sakrifizio erritualak eskatzen digula. Hala ere, asegitza da haren gosea, biktima baten heriotzak hurrengoaren irrika sor erazten bait dio. Herenegun, indiarrak eta beltzak izan ziren. Atzo, baleak eta basoak. Gaurko biktima lur osoa da.

Baina gu ez gara mundu honetara etorri bizigabeko mamu honen elikagai bihurtzeko. Gu bizitzaren lekuko izateko gaude hemen, egiaren bidea ibiltzeko. Eta horretarako bizitzaren mintzabidea behar dugu ikasi eta erakutsi, egin eta eragin.

Heriotzaren bidean galtzen da gizakia. Bizitzaren bidetik goratzen dira, berriz, pertsonak, jainkotuz, hots, Jainkoaren (Biziaren) parte bihurtuz.

Testamentu Zaharrean esaten omen du Jainkoak "Ni, naizena naiz". Beraz, gu bere irudi eta antzaren arabera eginak, Jainkoaren parte gara, benetan garena garenean. Eta zer gara gu? Beti-danik izan da hori galderarik inportanteena, mundua mundu denetik berekin eraman duena gizakiak, eta bere baitan erantzuna eman behar diona bakoitzak. Baina norberak bere erantzun propioa aurkitu behar badu, berorrengan besteak ere bizi dira; nik identitate sozial gainjarri batzuk ditut (familiarra, lokala, profesionala, nazionala eta abar): eta identitate sozial guztien elementu integratzailea hizkuntza dugu. Horregatik euskaldun bezala "ni" Euskara dudana naiz, hots, Euskararen bizitza bultzatzen duena, Euskararen egia ahozkatzen duena, Euskaratik bizitzaren bidea ibiltzen duen hori. Euskalduna naizelako, Euskara da nire esku hartzeko era. Nire modua eta era bizitzaren alde egiteko.



---

Zeren eta Euskara eta Bizitza arrisku berean sarturik daude gure herri honetan. Eta Euskara hiltzen duena bizitza osoa erailtzen ari dena da.

Hortaz ez da gurea boterearen (kontrakeriaren) bidea. Ez gara inoiz botere-hizkuntza izan. Ez dugu orain bihurtu behar. Baina gu gara hizkuntzaren boterea edo ahalmena, bizitzaren lekuko izateko bizitzatik datorren Logos-en ahalmena, zera: bizitzaren egia, edertasuna eta iraupena adierazi eta zabaltzen duena. Bestelako edozein jokabide ez da gure egiazko gaitasun eta errealitate kosmikoaren usurpazio maltzur bat baizik. Arazoa ez da guk (edozein taldetakoak) boterea hartzea: horrek bertze kontrakeriaren etengabeko dinamika martxan jarriko bait luke. Arazoa da herri honetako hiztun euskaldunak "hizkuntzatu", hizkuntzaren alde konpaktatu, euskaratu, Euskararen eta bizitzaren alde egitera bultzatzea, euskaldun osoak direnak direna izan daitezela eta zabal dezatela. Hasieran lehena zenak ("hitza") azkenean ere lehena izan behar baitu.

Jakin badakit nik hortik abiatzea ez dela erraza. Oztopoak dira, aitzitik, ugari. Baina ez gaude bakarrik: alaitasunak, adiskidantzak, ilusioak, zintotasunak eta osotasunak egiten digute lagun. Bizitzak merezi du gure kementa, guk bizitzaren emaitza merezi dugun heinean. Azken finean, gauden mundua ikusirik, kontra ditugun oztopoez konturaturik, gure ahaleginak dira, berez, garai honetan bizitza osoari erai-ki diezaiokegun monumenturik handiena. Ez dakigu guk bukatuko dugun ala ez. Baina badakigu lur honetan bizitzak jarraitzen baldin badu jarraitzaileek gure lana aintzakotzat hartuko dutela. Eta nik pentsatu nahi dut Kosmos guztiak begiratuko, onartuko eta lagunduko duela guk bizitzaren alde egiten dugun neurrigabeko ahalegina heriotzaren irla txiki eta zoratu honetan. "Kosmoseko ekonomian -dio esal-

di zahar, zuhur batek- ez da ahaleginik galtzen".

Publikoki omenduen merezimendubaremoan gehien puntuatzen dena "hila izatea" den herrialde honetan, nik hemen omenaldi txiki bat eskaini nahi diet Euskararen biziaren, bizitzarako Euskararen, eraikitzaile bizi guzti eta ba-koitzari: Dionisio, Koldo, Julen, Txema, Iñaki, Joxeangel, Xamar, Txema, Arantza, Permin... eta bizi-diskurtsoa bereganatu duen beste hainbati, horrela jokatzean berorren eroale bihurtu bait dira: osotu, barreiatu eta fruitua eman erazten diotenak. Baina batez ere AEDko gizon eta emakumeak omendu nahi ditut, diskurtso honen gizarteratze edo sozializazioa adierazten duelako beroien ahaleginak. Egunerokotasunaren oinarizko zutabe neketsu eta ikusgarritasunik gabekoen gainean, diskurtso hau gauzatzeko behar dena ari bait dira erai-kitzen: ekintza kolektiboa. Hemendik abiatuz, apaltasunez, lan isilaz eta sorbide edo gestazioan dagoen izakiaren huskeri antzaz -baina aldi berean edozein enbrioi bizik hedatzeko duen indarraz- elkarren aberasgarri eta motibatazaile den elkarrizketa dialektikoa ezarri ahal izango da teoriaren eta ekintzaren artean, pertzepzioaren eta erabilpe-naren artean.

---

## *Horregaitik, dauden mintzabideak bi dira, eta besterik ez: biziarena eta herioarena*

Maitasuna, "ongia ihardunean" dela esanez definitu du Keppe psikologoak. Euskararentzat ona dena ihardunean jartzean hasten da sortzen bizi-plasma ("filia"), honek bildu, elkartu eta osasuntsu hazteko gaitasuna eman diezaio-keelarik garai berri bateko komunitate euskaldunari; lankidetzak kolektiboa,

---

behaketa inpartziala eta norbere buruaren kritika dira, etengabe erne egonez, kanpo-tentsioek eragin lezaketen abortoa eragotziko duten faktore erregulatuak.

“The Theory of Celestial Influence” liburu ederrean, Rodney Collin idazleak, Teбайдako eremutarren kondaira zahar bat dakarkigu, nik hemen aipatu nahi dudana. Behin batean, eremutar batek ikuskari bat izan zuela kontatzen digu Rodneyk:

---

### *“Kosmoseko ekonomian -dio esaldi zahar, zuhur batek- ez da ahaleginik galtzen”*

“Itsaso zabalaren ertzean zegoela, monje bat ikusi omen zuen hego sendoz altxatu eta urrutiko portu ikustezin baterantz zuzen hegan joaten. Harekin txundituta zegoen bitartean, bigarren monje bat altxatu zen, baina askoz hego ahulagoekin hau, eta ozta ozta lortu zuelarik uhinen gainetik joatean, lan eta arrisku handien ostean bakarrik lortu zuen beste aldera iristea. Artean hari begira zegoela, hirugarren monje bat goratu zen, baina hain ahul egiten zuenez hegan, behin eta berriro jausten zen itsasora, eta bere indar guztiez baliatuz bakarrik lortu zuen heriotzari ihes egitea.

Azkenean, ordea, eta probabilitate guztien kontra, monje hark ere lortu zuen urrutiko lehorrera iristea.

“Luze gogoetan egon ondoren, nagusiarengana joan eta ikuskariaren berri eman zion eremutarrek. Interpretazio hau eman zion nagusiak: Lehenengo ikusi duzun monjea, geure garai honetan zerura igo nahi duena da: nahikoa erraza da. Bigarren monjea, helburu hori lortzen ondoko aldian saiaturiko direnen ordezkari da: askoz zailagoa izango da. Hirugarren monjea, urruti-urrutiko etorkizunean ahaleginduko da zerura iristen, ia ezinezkoa izango denean. Poztu zaitez gure garai honetan bizi zarelako, baina ez ezazu hau ahaztu: hirugarren monjearen ahaleginak gainerako guztienak beste balio du”.

Gu, hirugarren monjearen aldian gaude. Guk nahi dugun edertasun, egia, ontasun eta benetazko mundu hori lortzea “probabilitate guztiaren aurkako” zerbait da. Hizkuntzen arloan ere, gaur egun inoiz baino zailagoa dirudi gurea bezalako hizkuntzek -bere osotasun eta normalitatearen lurralde segurua iristea oraindik lortu gabekoek- aurkako indar suntsitzaileak bere alde jartzea lor dezaketarik. Baina gutxienez, poztu gaitzen erosotasun, inertzia, norberekoikeria, inozokeria eta gizarte-ulertezintasunezko itsaso nahasiaren aurrean, gure ahalegin titanikoak gainerako guztiak beste balio izango duelako. Bera da, ilunaldi luzeari amaiera jarriko dion zubia biziari irekiko diona.